## OMLH 2 URTEKO IBILBIDEAREKIN + IBILBIDE INTEGRATUA

**15 urte beteta edukitzea edo indarreko urte naturalean betetzea.**

\+

**DBHko 3. edo 4. MAILAKO EGINDA (1. ZIKLOA)**
**edo**
DBHko 2. MAILAKO EGINDA (Salbuespenez – Kasu horietan, PAZari jakinaraztea)

\+

**Irakasle Taldearen proposamena (Orientazio Batzordea)**

**2026KO APIRILAREN 16KO AGINDUAREN II. ERANSKINA: Eskaera eskaintza baino handiagoa denean bete beharreko irizpideak:**

*1.- EAEn eskolatuta dagoen ikaslea / edo DBHko azken ikasturtean erkidego horretan bertan eskolatuta egon dena*:

a.- DBHko 3. edo 4. mailara arte ikasi duen ikaslea eta inskripzioaren urte naturalean 17 urte dituena (*)
b.- DBHko 3. edo 4. mailara arte ikasi duena eta inskripzioaren urte naturalean 16 urte dituena (*)
c.- DBHko 3. mailara arte ikasi duena eta inskripzioaren urte naturalean 15 urte dituena (*)
d.- DBHko 2. mailara arte ikasi duena eta inskripzioaren urte naturalean 16 urte dituena (*)
e.- DBHko 2. mailara arte ikasi duena eta inskripzioaren urte naturalean 15 urte dituena (*)
f.- DBHko azken kurtsoa EAEn egin ez duten ikasleak a)-tik e)-ra ezarritako lehentasun berarekin. (*)

g.- 17 urtetik gorako ikasleak, DBHko 3. edo 4. mailara egin dutenak edo, salbuespenez, DBHko 2. maila egin dutenak; betiere, irakasle-taldeak proposatu badie ikasleen familiei edo legezko tutoreei OLH-ren ziklo batean sar daitezen. (*)
h.- Aurreko taldeetan sartuta ez dauden gainerako eskatzaileak, baldin eta inskripzioaren urte naturalean 15-18 urte dituztela eta Espainiako hezkuntza-sisteman eskolatuta egon ez direla egiaztatzen badute. Adinaren arabera ezarritako hurrenkera (txikienetik handienera).
i.- 18 urtetik gorako gainerako eskaerak, inskripzioaren urte naturalean, Espainiako hezkuntza-sisteman eskolatuta egon ez direnak. Adinaren arabera ezarritako hurrenkera (txikienetik handienera).

***(*)Lehentasuna:*** batez besteko nota onena.

**ESKAINITAKO PLAZAK** = Plaza libreen gehieneko kopurua - Errepikatzaileentzat gordetako plazen kopurua **(≤ 15*)**

* Aukera dago ikasle kopurua handitzeko (gehienez **20**), baina Plangintza eta Antolaketako Zuzendaritzaren baimena behar da

* **% 10 erreserbatuta** % 33 edo gehiagoko desgaitasuna egiaztatzeagatik sartzen direnentzat.
* **% 5 erreserbatuta** HLBP erregistroan inskribatuta daudenentzat.
* **% 5 erreserbatuta** eliteko kirolariak direla egiaztatzen dutenentzat.
* **% 80 erreserbatuta** gainerako taldeentzat.

Desgaitasuna egiaztatzen dutenentzat edo eliteko kirolarientzat erreserbatutako plazak aukeratzen dituzten baina plazarik lortzen ez duten ikasleek aukera izango dute gainerako taldeentzat erreserbatutako plazak aukeratzeko.

PAZ: Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritza